



Ayuntamiento de OYÓN-OION
OYÓN-OIONgo Udala

Gaia: COVID-19 birusaren kutsadura-kasuak areagotu direla-eta hartuko diren prebentzio-neurriak

COVID-19 birusaren kutsadura-kasuak areagotu egin direla ikusita, eta Udaleko Bozeramaileen Batzarrari kontsulta egin ondoren, Udalak zenbait prebentzio-neurri hartuko ditu, koronabirusa udalerrian ahalik eta gutxien zabal dadin.

Gaurtik aurrera, jarduera hauek bertan behera geratuko dira:

- **Liburutegia:** aurrez aurreko jendaurreko arreta eten egingo da. Telefono bidezko arreta emango da, jendaurreko ordutegian.
- **Oiondeportivo (Arroyo I pilotalekua, lehengo igerileku estaliko aretoa...):** 18 urtetik gorakoek ezingo dute sartu. 65 urtetik gorakoek ezingo dute sartu. Gidatutako ikastaroetako pertsona kopurua mugatu egingo da, pertsonen arteko 1,5 m-ko tartea bermatzeko. Muskulazio-gelako pertsona kopurua mugatu egingo da, helburu berarekin: 1,5 m-ko tartea bermatzea. Makina bakoitza erabili ondoren, norberak esprai bat bota beharko dio makinari, muskulazio-gelaren ordutegi osoan zehar makinak ondo desinfektatuta daudela bermatzeko.
- **Musika-eskola:** jarduera guztiak bertan behera geratuko dira.
- **Azoka:** jarduera guztiak bertan behera geratuko dira, kontrakoa esaten den arte.
- **KZGunea:** jarduera guztiak bertan behera geratuko dira.
- **Adinekoen Etxea:** jarduera guztiak bertan behera geratuko dira, taberna-kafetegi zerbitzua izan ezik.

Plaza Nagusia 5 helbideko bulego orokorrak irekita egongo dira, baina herritarrei eskatzen diegu, ahal dela, ez joateko udal-bulegoetara izapideak egitera.

Alternatiba gisa, Udalaren webgunean eskuragarri dauden tresna telematikoak erabiltzea gomendatzen dugu: <http://www.ayuntamientodeoyon.com>.

Halaber, arreta emango da telefono bidez (945622190) eta posta elektronikoz (info@ayuntamientodeoyon.com).

Udalak informazio eguneratua emango die herritarrei bere webgunearen bidez eta erakundearen sare sozialen bidez.

Herritarrei gomendatzen diegu webgune ofizialen bidez informatuta egoteko:

- Eusko Jaurlaritzaren webgunea: <https://www.euskadi.eus/nuevo-coronavirus-covid-19/>
- Espainiako Gobernuaren Osasun Ministerioaren webgunea: <https://www.mscbs.gob.es/>

Ez da gomendagarria informazioa kanal eta sare sozial informalaren bidez eskuratzea, ezta egiaztatu gabeko informazioak birbidaltzea ere, gezurrak zabaltzen ez laguntzeko.

Oyón-Oion, 2020ko martxoaren 13a.
Alkatea, Eduardo Terroba Cabezón.